


IV. Argazki Lehiaketa 'Argazkiez blai!'



Oiartzungo Udaleko Gazteria eta Kirola Sailak, **Oiartzungo IV. Argazki lehiaketa 'Argazkiez blai!'** antolatzen du, honako oinarrien arabera:

OINARRIAK

1. PARTEHARTZAILEAK

- Gipuzkoako 12 eta 29 urte arteko **gazteak** parte hartu dezakete (**29 urte artekoak, hauek barne**).
- Izen ematea, www.gazteoiartzun.net/ARGAZKI-LEHIAKETA.pdf araudiaren arabera egin behar da (ikusi oinarri hauen bukaeran).
- Parte hartzeak, lehiaketa honen oinarriak bere osotasunean onartzea suposatzen du.

2. GAIA

Librea.

3. KATEGORIAK ETA SARIAK

- **Nerabeak (12-17 urte tartekoak)**
 1. saria.....300 €
 2. saria.....150 €
 3. saria.....80 €
- **Gazteak (18-29 urte tartekoak)**
 1. saria.....600 €
 2. saria.....300 €
 3. saria.....200 €

- 1) Parte-hartzaile bakoitzak gehienez sari bakarra jaso dezake
- 2) Sariak *desierto* gelditu daitezke

4. ARGAZKIAK

Baldintzak

- Parte hartzaile bakoitzak **gehienez 3 argazki** aurkeztu ditzazke.
- Argazkiak, www.gazteoiartzun.net/argazkiak webgunetik bakarrik zintzilikatuz onartuko dira eta www.gazteoiartzun.net/argazkiak-nola-igo.pdf araudiko **baldintzen arabera** (Oiartzungo Gazte Informazio Bulegoan ere eskura daitezke).
- Argazkien egileak, bere gain hartzen du egiletasun eta argazkiaren originaltasuna.
- **Baldintza guzti hauek betetzea ezinbestekoa izango da sarietako bat jaso ahal izateko.**
- Lan sarituak Oiartzungo Udalaren jabetzan geratuko dira, eta honek argitalpen eta berregintzaren eskubidea izango du, beti egilearen izena aipatuz.

Ezaugarriak

- Argazkien neurri eta pisuak:
 - Pisu **minimoa 500 Kb** eta **maximoa 3 Mb**
 - **JPG** formatoan
 - Oinarritzko ikuituak onartuko dira baina ez fotomontaiak

IV. Argazki Lehiaketa 'Argazkiez blai!'

Argazkiak, sarituen zerrenda eman eta gero, hilabete batez egongo dira ikusgai www.gazteoiartzun.net/argazkiak webgunean eta ondoren, irabazi ez dutenak ezabatu egingo dira eta sarituentzako espazio bat egokituko da aurrerantzean bertan ikusgai izateko.

5. EPEAK

Argazkiak www.gazteoiartzun.net/argazkiak webgunera igotzeko epea **azaroaren 1etik 30era**, biak barne, izango da. Sarituak abenduaren 26an ospatuko den sari banaketa saioan emango dira ezagutzera.

6. ANTOLATZAILEA ETA EPAI-MAHAIA

Oiartzungo Udaleko Gazteria eta Kirola Sailak, antolatzen du **Oiartzungo IV. Argazki lehiaketa "Argazkiez blai!"**.

Epaimahaia, Oiartzun Udaleko Gazteria eta Kirola Sailak izendatuko du eta udaleko ordezkariak gain, argazkilaritzan adituak diren pertsonak aukeratuko dira. Epaimahaiaren erabakiak apelaezinak izango dira

7. DATU BABESA

Datu babesen inguruko araudiarekin bat etorriz, lehiaketan bildutako datu guztiak Oiartzungo Udalaren ardurapeko datu base batean gordeko dira.

Parte-hartze prozesuan jasotako datu pertsonalak, oinarrietan eta www.gazteoiartzun.net/argazkiak-nola-igo.pdf baldintzetan '**Argazki lehiaketaren webgunean izena eman**' atalean azaltzen diren bezala tratatuko dira lehiaketaren kudeaketa egoki bat bideratzeko. Datu hauek ez zaizkie hirugarren pertsonari entregatuko. Datu hauetara sartzea, moldatze eta ezabatzea, egunean dagoen araudiaren arabera egiterik izango da.